

Plis eta Plas



Orain dela urte asko bi bota Plis eta Plas izenekoak zeuden. Plis ezkerrekoa zen, eta plas eskuinekoa. Bi botak salgai egon ziren, eta neskato txo batek erosi zituen, Elene izenekoak zen. Elene garaia zen eta begiak eguzkia bezain ederrak zituen, eta bederatzi urte zeuzkan, alaba bakarra zen eta lagun gutxi zituen. Elene kirolzalea zen (eskupilota, futbola, beisbola...) gustatzen zitzaizkion.

Elenek Plis eta Plas erosi zituenean mutuak ziren, ahoa josita zeukatelako. Elene leku guztietara joaten zen bere bota berriekin. Baina hainbeste jo lastu eta gero, aurretik apurtzen hasi ziren.

Igande gau batean Plis eta Plas elkarrizketan hasi ziren:

- Aspaldian nago hitz egiteko gogoarekin - esan zuen Plisek.
- Ni ere bai - esan zuen Plasek.
- Kokoteraino nago Eleneren jokoekin - esan zuen kexaka Plisek.
- Oso gaizki tratatzen gaitu neskato honek - Plas ere kexaka.
- Zerbait egin behar dugu Elenek hain txarto ez zaintzeko - jarraitu zuen Plisek.
- Arrazoi duzu Plis, zeozer egin behar dugu - esan zuen Plasek.

